

EUSKEREA. Umeen artean igoerea nabarmena izan bada be, gazteek gero eta gitxiago egiten dabela ikusi dabe

AZTERKETEA

Datuok ez dabe erakusten auzoetan jazoten dana

«Ezin dogu auzorik auzo daturik emon. Guk Euskal Herri mailako ikerketea egin gura genduan, eta, halandaze, orokorregiak dira jaso doguzan datuak». Olatz Altuna SEI alkarteko arduradunaren berbak dira horreek. Izan be, euskerearen erabilearearen ganeko datuak egozala jakindakoan, *Bizkaia* eurekin berba egin eta auzorik auzo uriburuan jasotako emaitzak eskatu eutsiezan.

Altunak argi itxi eban, eskuartean dituen datuek ez dabela auzorik auzo jazoten danaren errealitatea zelakoa dan erakusteko balio. «Horretarako ordu eta jente gehiago ipini beharko genduzan, benetan zer jazoten dan jakiteko. Datuak orokorregiak dira, Euskal Herrian gertatzen dagoena argitzen dabenak, baina ez horrenbesteko zehaztasunagaz», ganeratu eban SEIko arduradun horrek.

Bilboko auzoetan gertatzen danaren ganean dagozan datu zehatz bakarrik, Eustat erakundeak 1996 urtean emondakoak dira. Bilbon izan zan hazkundeak bere gorabeherak izan zituan auzo batetik bestera.

Bilbon egiten diran ehun berbetatik bost besterik ez da egiten euskeraz

SEI alkarateak egindako azterketearen arabera, geratu egin da huriburuan erabilera mailan urteetan egon dan hazteko joerea



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Bilboko nagusien artean be behera egin dau euskerearen erabilereak azkenengo lau urteetan.

Iñigo Bilbao

Bilbon geratu egin da euskerearen erabilera urteetan egon dan hazteko joerea. Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen (SEI) alkarateak ezagutzero emon bari dituan datuen arabera, Bizkaiko uriburuko kaleetan egiten diran ehun berbetatik bost baino ez dira euskeraz. Neurketea Euskal Herri osoan egin dabe SEIko teknikariak. Igaz, zemen-diaren 7tik 10era bitartean, kalera urten, belarria ipini, eta entzundako berbaldi guztiak jaso zituen, zenbat ziran euskeraz eta zenbat erdaraz neurtzeko.

Azterketea lau urtean behin egiten dabe, eta horren ardura-dunek aitortu dabenez, orokorrean jasotako emaitzekin gertatzen dan lez, Bilbon jazoten dana arduratzeko modukoa da. 2001 urtean eta lau urte arinago erabilten zan euskera kopurua bardin-bardina zan, eta seko geratu zan aurreko urteetan nabamendutako igoerea. 1989 urtean, %3koa zan euskerearen erabilerea Bilbon. Lau urte beranduago, puntu bat egin eban gora kopuru horrek, eta, lehenago aitatu lez, 1997. urterako beste puntu bat igotea lortu eban, %5eraino.

Ezagutzea be mantendu egin da

Udalak asteen emondako datuen arabera, uriburuan %14,3 ziran euskaldunak, 1996. urtean egindako erroldearen arabera. Laster ezagutuko dira Eustat erakundeak igazko datuekin egindako azterketea eta badirudi, oso antzekoa izango dala bilbotar euskaldunen kopurua, 0,1 besterik ez dalako igon urte horreetan zehar.

SEI alkarateak egindako azterketan, bestalde, oso nabarmena da euskerearen erabileari jagokonez, umeek daukien eragina. Izan be, orokorrean igoerarik egon ez bada be, umeen artean erabilereak puntu bi igon dau, eta orain lau urte euren artean egindako berbetatik %7 euskeraz baziran, igaz 9ra igon eban erabilereak.

Gazteen artean, barriz, gero eta euskera gitxiago egiten da; puntu bat gitxiago (%5etik %4ra), azterketearen arabera. Helduen artean, bardin-bardin mantendu da (%4), eta nagusien artean, barriz, gitxitu egin da erabilerea (%2tik %1era).

Euskerearen aurrean, gizona eta andra euskaldunek jarrera bardina erakutsi dabe, egiten dan euskera kopurua erdizka egiten dabe eta. Aldaerea inon nabarmena bada, umeak dituen etxeetan da: Bilbon seme-alabak dituen bikoteen artean, %7 egiten da euskerea; umerik ez dan etxeetan, barriz, %2 besterik ez dabe egiten.

PATXI ALAÑA ARTEZ EUSKERA ZERBITZUA

«Datuak arduratzeko modukoak dira, ez dogulako lortu oraindino Bilbo izatea Bizkaiko euskalduntzearen motorra»

I. B.

Euskerearen erabilera Bilbon daukan eragina aztertu dau Patxi Alaña Artez zerbitzuko arduradunak.

■ Zer ondorio atara dozuez hizkuntza erabilearen ganeko datuetatik?

Lau neurketa egin ditue orain arte, eta 93an igoera handia egon zan arren (%2,5etik %4,3ra pasau zan), harrezkero %4aren inguruan gabilz. Azkenengo lau urteetan hamarrek gitxi batzuk besterik ez dau igon. Baina hori ez da Bilbon bakarrik gertatu. Euskal Herrian be, lehenengo neurketatik bigarrenera, igoerea handia izan zan, baina gero moteldu egin da. Arazoa da Bilbon nabarmenagoa izan

dala moteltzea beste lekuetan baino. Hori arduratzeko modukoa da, ez dogulako lortu Bilbo izatea Bizkaiko euskalduntzearen motorra.

Badinotsut, arazoa progresinoa moteldu izana da, ze erabilera kopurua, izatez, ez da horren txikia. Kontutan hartzen badogu uriburuan euskerea ondo ezagutzen dabenak %14,4 dirana, %5ek erabiltea ez da datu txarra.

Dana dala, hor beste faktore zuzentzaile bat kontutan hartu behar dogu, Bilbon entzuten dan euskera guztia ez da bilbotarrek egin. Herrietatik jente asko etorten da egunero, eta horrek datuetan desorekea eragiten dau.

■ Udalak emon barri dituan datuetan be, nabarmena da

UMEAK

«Gazteak dira euren eredua, baina mundu erdaldunean bizi dira gazteak»

ezagutzan egon dan igoerea, batez be umeen artean. Datu kontrajarriak dira?

Gauzak hori baino korapilatsuagoak dira, eta emaitzak ez dira berehala ikusten. Hizkuntza politikearen emaitzak epe luzera neurtu behar doguz. Umeentzako gazteak dira erdua, eta gazteek mundu erdalduna bizi dabe. Kale erabilerean, adin talderik gaxena gaz-

teak izan dira. Baina azkenengo neurketetan ikusten da gazteek gero eta eredu euskaldun gehiago dituela, eta hori belaunaldi batetik bestera pasetan dan gauzea da.

Eustatek emondako datuetan, esaterako, argi ikusi da 1991tik 1996ra, erabilerean igoerea handiena egon zanean, ezagutzan oso igoera txikia egon zan Bilbon.

Ikusi da, bestalde, umeen erabilerea ia-ia bikoiztu egiten dauena batenaz bestekoa, eta hor bai ikusi da bultzadea egon dana. Kezkatzekoa da gazteen artean egon dan beharakadea, beste lekuetan aurrera egin badau be, berton ez da horrela gertatu. Agintariak gazteei zuzendutako ekimenak bultzatu beharko ditue.